

Atal honetan, gure enpresarekin diru-sarrerak lortzeko erabiliko ditugun metodo desberdinak zehaztu ditugu. Horretarako, parte-hartzaileak gure ekintzen edo zerbitzuen truke zenbat ordaintzeko prest dauden jakingo dugu. Hori dela eta, zerrendatuko ditugu gure diru-sarrera garrantzitsuenak.

- **Bazkidetza:** Gure zerbitzu nagusiak jasotzeko bazkidea izatea beharrezkoa da. Horretarako, 40 euroko kuota ordaindu beharko da. Honekin, gure diru-sarrera nagusia bermatuko da.
- **Kamiseten salmenta:** 2-3 koloreetako kamisetak saldu ahal ditugu: beltza, morea eta berdea. Hauetan, logo edo irudi bat txertatuko dugu, gure elkartearena izango dena zehazki. Esaldiren bat ere txerta daiteke, adibidez “Munduko ahotsak”. Kamiseta bakoitzaren prezioa 8€-koa izango da. Hauek, lokalean ikusgai eta salgai egongo dira, baita gure web gunean ere. Web gunean ikusi ondoren, gurekin korreo eta sare sozialen bidez harremanetan jartzeko aukera dago kamisetak eskatzeko helburuarekin, eta hauek modu presentzialean jasoko dira gure lokalean.
- **Rifen salmenta:** Rifa desberdinak sortuko ditugu eta zozketa bat egingo dugu. Horretarako, Bilbo inguruko herrietako komertzio txikietara joango gara, haiek modu boluntario baten haien produktuak eskainiz. Lortutako produktuekin, otzarak sortuko ditugu, rifen bidez zozketa batean parte hartuz. Rifek 2€-ko prezioa izango dute eta bertan parte hartu duten izenak aipatuko ditugu.
- **Bokata/janariaren salmenta.** Ekitaldi bereziak ez direnak baina astean zehar antolatuko diren ekintzetan, bokatak salduko dira. Mota askotarikoak egongo dira eta dieta ezberdinak kontuan hartuko dira. Gainera, hauek merkeak izango dira. Izan ere, gehienez 5€ balioko dute. Soberan geratzen den janari hori ez botatze aldera, elikagai-bankuarekin harremanetan jarriko gara, egun horretan bertan guk erabili ez dugun hori haiei emateko eta horrela, gure arteko lankidetza bermatuz.
- **Ekitaldi eta jardunaldi bereziak:** Kultura aniztasuna bultzatzeko hilean behin egiten diren ekitaldiak antolatuko ditugu. Ekitaldi hauek bereziak izango dira. Izan ere, hautatu ditugun elkarteetako profesionalak bertaratuko dira ekitaldi zein hitzaldi hauek ematera. Joan ahal izateko, hilean behin 15 € ordaindu beharko dute.

- **Gaueko ekitaldiak:** Kultura desberdinetako musika eta dantzak batzen dituen ekitaldiak eskainiko ditugu. Hauek, astean behin gauzatuko dira zehazki larunbatetan. Gau hauetara gerturatzen diren bakoitzean, sarrera bat ordaindu beharko dute. Honen prezioa 15€koa izango da, eta honek barne hartuko du edari bat. Hala ere, bertan edari ezberdinak hartzeko aukera egongo da nahi izanez gero eta hauen prezioa 8€koa izango da.
- **Bazkideentzako deskontuak:** Deskontuak ere eskainiko ditugu. Zehazki, bazkide diren parte-hartzaileentzat %10eko deskontua izango dute ekintza berezietan parte hartzeko, hala nola, gaueko jardueretan eta hilean behin antolatzen diren ekitaldi berezietan. Honen bidez, parte hartzaileekiko harremana bermatuko da, harremanak sendotuz.